

Buru bakotxerako giro bat

Gernika-Lumon badago aukerea jaietan giro ezbardinak aurkitu ahal izateko

Ez da erreza danen gustorako egitaraua antolatzea jaietan. Zenbat buru hainbat aburu esaten da, eta jaietan be buru bakotxak giro ezbardin bat eskatzen dau ia-ia. Halandabe, Gernika-Lumon badago aukerea jaietan giro ezbardinak aurkitzeko.

Urte osoko moduan, tabernen artean giro mota bi egingo dira: Juan Kaltzada kalekoa eta Industria eta Pablo Picasso kaleetako. Berez, alkarrengandik oso hur dagoz kale biak, baina zapatu gauetan-eta oso giro ezbardina egoten da batean eta bestean. Juan Kaltzadan gazte jentea ibiltan da batez be.

Ainhoa Lauzirika Juan Kaltzada kalean ibiltan da batez be. Ez jaietan bakarrik, urte osoan baino. Gazte giro hori gustetan jako. Halandabe, onartzen dau beren *kintako* asko beheko kale-tik ibiltan dirala (Pablo Picasso eta Industria kaleetan): «Nik, baina, gurago dot Juan Kaltzada kaleko giroa. Jentea gaztea egoten da batez be, musikea dezenttea izaten da... Halandabe, egia da askotan Juan Kaltzadan jentea gazteegia egoten dala». Ez dauka beste erremediorik, baina, «beheko kalean, ezkontzeta-tik eta urtendako jentea egoten da batez be. Osterantzean, leku trankilak dira; bokata bat jaten joateko edo kafe bat hartzeko ondo dagoz, baina gurago dot giro mogiduagoa».

Txosnetan eta tabernetan

Begoña Maguregi, ostera, Pablo Picasso eta Industria kaleetan moldatzen da ederto baten. Ez dau askoz gehiago gura, «jaietan beti egiten dogu txosnetara bueltatxoren bat edo beste. Goiko tabernetara (Juan Kaltzadara) be joaten gara, baina gehienbat Auzokoa, Madariaga, Julen, Gernika... horreetan ibiltan gara».

Ez dau uste, ganera, giro motela egoten danik: «Goian musi-



Dantzariak kalean, emanaldi batean, sanroketan, aurreko urte batean.

kea altuegi egoten da askotan. Tabernetan dantzan egitea ondo dago, neuk be egiten dot, baina ondokoagaz berba be egin behar izaten da».

Dana dala, poteoko kale bi horretan urte osoan egoten da jentea zapatu gauean. Beste leku batzuetan, baina, Artekaletan kasu, egunez egoten da jenterik gehiena. Batez be kafea hartzeko lekuak dira. Kalea arkupeetan dagoanez, mahaiak eta aulkiak jarten dabez kanpoan, eta han egoten da jentea arratsaldea pasetan. Jaietan, baina, goizaldera arte egoten dira zabalik taberna horreek, eta jentea trankil egoten da jesarrita.

Gehienek antzerako erantzuna emon dabe. «Umeak-eta badaukazuz, leku eroso da. Kalea itxita dago, orduan ez dago trafikorik. Jesarrita zeozer hartzen dozun artean, umeak olgetan dabilz, eta, ganera, barrake-

AINHOA LAUZIRIKA

Gernika-Lumoko herritarra

«Nik gurago dot Juan Kaltzada kaleko giroa; jentea gaztea egoten da, musikea dezenttea»

tatik oso hurre daukagu. Guretzako lekuri onenak haxe eta San Juan Ibarra dira. Umeen-gatik batez be, gu edondon egongo ginake, baina eurak horrexetan leketan dagoz trankilen». Jaietan be bakotxak bere erosotasunari begiratzen deutso.

Dana dala, aurton kale guztiek parte hartuko dabe jaietan. Horretan zerikusi handia izan dabe ostalaritza alkarteek. San

Roke eguneko herri bazkarian, esate baterako, ostalariak arduratuko dira kale animazinoagaz. Ez dira, ganera, brometan ibili. Barrenkalean, esate baterako, erromeria izango da San Roke arratsaldean.

Juan Kaltzadako ostalarien ekarria

Herriko tabernaririk gehienek parte hartu dabe jaien antolaketan. Halandabe, Juan Kaltzada kalekoek inplikazio berezia erakutsi dabe. Urte osoan, gazteria guztia kale horretan mogitzen denez, jaietan be jenterik gehien bertan ibiliko dalakoan dagoz. Hori dala eta, hainbat ekitaldi antolatu dabez.

Alde batetik, kale guztietako moduan hainbat animazino talde izango dira San Roke eguneko bazkarian. Beste alde batetik, baina, jaietako egun guz-

tietara zabaldu dabe euren eskaintzea. Egun baten erromeria egingo dabe Saraspen, beste egun baten perkusino jaialdia izango da kalean gora eta behe- ra, goma saltoa egiteko aukerea be izango da Juan Kaltzada kalean, eta abar. Hori dana, bertako tabernarien ekimenari esker.

Tabernari batzuek esan ebe- nez, «Udalak jai batzordeari emoten deutson dirua bardina da azkenengo urteetan; ez dabe bat be igon. Orduan, egitarauan dagoana dago. Askotan labur geratzen da, eta jenteari eskaintza barriak egin behar jakoz». Bide horretan apostu garbia egin dabe Juan Kaltzadako tabernariek. Beste tabernarien beharra alboan itxi barik.

Kontzertu gehienak Pasealekuan eta San Juan Ibarren egingo dira. Halandabe, estilo aldetik ez dabe zerikusirik izango baten eta bestean egiten diran

aterpe
taberna

Fray Martín de Murua, 1
Tel. 94 625 74 84

48300 GERNIKA
BIZKAIA



Eguneko menua • Menu bereziak

CARLOS GANGOTTI, 7.
48300 GERNIKA-LUMO TEL: 94 625 38 58

OINETAKOAK
ONA

Abaroa, 2 - Tel.: 94 684 08 07
LEKEITIO

Artekale, 16 - Tel.: 94 625 48 67
GERNIKA